**INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA**

IRAGARKIA, Taberna Zarra, S.L. jatetxearen aurka hasitako zehapen-espedientea ebazten duen 2003ko urtarrilaren 27ko Ebazpena –Turismoa Antolatzeko zuendariarena– jakinarazteari buruzkoa. 9042

**DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO**

ANUNCIO por el que se notifica la Resolución dictada el 27 de Enero de 2003 por la Directora de Ordenación Turística por la que se resuelve el expediente sancionador abieto contra la entidad Restaurante Taberna Zarra, S.L. 9042

## Pribatuen Iragarkiak

**IURRETA GLHB INSTITUTUA**

IRAGARKIA, Batxiler-titulua galdu dela argitara ematen duena. 9044

**JUAN CRISÓSTOMO DE ARRIAGA MUSIKA-KONTSERBATORIO NAGUSIA**

IRAGARKIA, Goi-mailako Txistu irakasle titulua galdu dela argitara ematen duena. 9044

## Anuncios Particulares

**IURRETA GLHB INSTITUTUA**

ANUNCIO por el que se hace público el extravío de un Título de Bachiller. 9044

**CONSERVATORIO SUPERIOR DE MÚSICA JUAN CRISÓSTOMO DE ARRIAGA**

ANUNCIO por el que se hace público el extravío de un Título de Profesor Superior de Txistu. 9044

# Xedapen Orokorrak

## INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

### Zk-2867

AGINDUA, 2003ko apirilaren 16koa, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuarena, lurralde-mailako turismoa indarberritzeko planetarako laguntzak ezartzen dituena.

Euskadik eskaintza zabala du baliabide turistikoetan (museoak, hiriak, herriak, ohiturak, hizkuntza, jaiak, jaialdiak, musika-kontzertuak, herri-kirolak, sukaldaritza, ingurune naturalak, pisajeak eta abar); baliabide horiei balio turistikoa eman behar zaie, eta produktu turistiko bihurtu behar dira. Balio turistikoa emate horrek esku-hartze planifikatua eta turismo-sektoreko agente publiko eta pribatuen kudeaketa jasangarria eskatzen du.

Turismoa indarberritzea, horixe da, oro har, laguntzak emateko agindu honen izena, eta, horelakoxea nahi du izana ere, helburuak hauek direla: egin beharreko jarduera guztiak antolatzea eta planifikatzea, baliabide horiek balio turistikoz janztearren, eta turismo-produktu erakargarri bihurtzearren, Euskadiko herri eta eskualde guztietan bisitariak eta turistak ibil daitezen.

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

### N°-2867

ORDEN de 16 de abril de 2003, del Consejero de Industria, Comercio, y Turismo, por la que se establecen ayudas para planes de dinamización turística de carácter territorial.

Euskadi, es un destino turístico con una rica y variada oferta de recursos turísticos (museos, ciudades, villas, tradiciones, lengua, eventos festivos, festivales, conciertos, deportes autóctonos, gastronomía, parques naturales, paisajes, etc.), recursos que es necesario poner en valor turístico, convirtiéndolos en productos turísticos. Esta puesta en valor turístico requiere de una intervención planificada y de una gestión sostenible de los agentes públicos y privados del sector turístico.

Esta Orden de ayudas con el nombre genérico de dinamización turística, tiene como objetivo la planificación y articulación del conjunto de acciones necesarias, para la puesta en valor turístico de esos recursos y para su transformación en productos turísticos, capaces de atraer flujos de visitantes y turistas a todos los municipios y comarcas de Euskadi.

Hori eskualdeka antolatzeko, toki-unitateetan (eskualde, koadrila, mankomunitate, eta abarretan) lan egiten duten agente publiko zein pribatuak antolatu eta dinamizatu behar dira; horretarako, beharrezkoa da turismo-lankidetzarako erakundeak martxan jartzea, gerora turismoa garatzeko «kudeaketa-gune» bihur daitezen. Kudeaketa-gune horiek epe laburrera eta ertainera turismoko azpiegituretan inbertsioak planifikatu behar dituzte, turismoko enpresaburuen artean eta turismoko zerbitzu publikoetan kalitatearen kultura sustatu behar dute, eta turismogintzan eragina duten erakunde publiko zein pribatuen lana ere indartu behar dute.

Turismoa erabat garatzeko zeregin horiek bultzatzeko, programa honek lau finantziazio-lerro ditu turismoa indarberritzeko laguntzetan. Lehena, Euskadiko eskualde edo koadriletan «turismoko lankidetzako erakundeak» sortzeko laguntza ematea da. Bigarrena, berriz, «turismoa indarberritzeko plan estrategikoak» egiteko laguntza ematea; eta hor bi bide ditugu: bata, esku hartzen den lurraldean turismo-estrategiei buruz gogoeta egiteko laguntza ematea, eta, bestea, baliabide turistikoak egokitu, hobetu eta/edo horietan inbertitzeko jardueretan laguntzea, bisitarientzako erakargarri diren produktu turistiko izan daitezen.

Hirugarrena, Percotur (Merkataritza eta Turismoa Indarberritzeko Planak) izeneko planak babestea da; plan horiek, berez turismorako profil nabarmena duten eta ezohiko esku-hartzea behar duten euskal udalerrietara zuzenduta daude; esku-hartze hori beharrezkoa da eskaera turistikoa eta komertziala urtarokoa delako. Plan berezi horiek, Merkataritza eta Kontsumorako Sailburuordetzaren Merkataritza Zuzendaritzarekin batera sustatzen dira. Laugarrenik eta azkenik, agindu honetan udalek produktu turistiko berriak sortzeko jardunak babesten dira, toki-esparruko baliabide ekonomiko, industrial, natural eta ondarekoak eraldatuta, eskainten diren produktu turistikoetan aukera handiagoa eman eta turismo-eskariak urteko sasoi guztietara zabal daitezen.

Azken batean, turismoa indarberritzeko laguntza-agindu honek, eskualde eta herri guztietan aberastasuna, enplegua eta garapena sortzeko aukerak bideratuz, Euskadiko eskaintza turistikoaren garapen jasangarria eta orekatua lortzea du helburu.

Laguntzen programa hau, lurralde-mailan turismoa indarberritzeko planetarako laguntzak ezartzen dituen Industria, Merkataritza eta Turismo Sailburuaren 2000ko ekainaren 30eko Aginduan jasota dago.

Agindu horren helburua: lurralde-mailan turismoa indarberritzeko planak egiteko laguntzak erregulatzea; horrenbestez, sustapen ekonomikorako helburuekin laguntzeko hainbat lerro ezartzen dituen ekainaren 27ko 121/2000 Dekretuan xedatutakoa garatuko da. Dekretuaren Azken Xedapenetatik Lehendabizikoan, hura ga-

La articulación comarcal requiere de un proceso de organización y dinamización de los agentes públicos y privados que trabajan en las unidades locales (comarcas, cuadrillas, mancomunidades, etc.) para lo cual es necesario la puesta en marcha de entes de cooperación turística, que se conviertan en las «unidades de gestión» del desarrollo turístico. Estas unidades de gestión deben planificar a corto y medio plazo las inversiones en infraestructuras turísticas, deben promover la cultura de la calidad entre los empresarios turísticos y en los servicios públicos turísticos y deben remover la acción de todos aquellas organizaciones públicas o privadas, cuya acción tenga alguna incidencia en el fenómeno turístico.

Para el impulso de estas acciones de desarrollo integral turístico este programa de ayudas de dinamización turística cuenta con cuatro líneas de financiación. La primera es el apoyo a la creación de «entes de cooperación turística» en las comarcas o cuadrillas de Euskadi. La segunda el apoyo a la elaboración de «planes estratégicos de dinamización turística»; en un doble sentido: apoyo para la reflexión estratégica turística del territorio donde se intervine y apoyo a las acciones de inversión, mejora y/o adecuación de los recursos turísticos para convertirlos en productos turísticos atractivos a los visitantes.

La tercera es el apoyo a los planes denominados PERCOTUR (Planes de Revitalización Comercial y Turística) y que van dirigidos a aquellos municipios vascos de claro perfil turístico en los que es necesaria una intervención excepcional, debido a que la demanda turística y comercial es altamente estacional. Estos Planes especiales se promueven en colaboración con la Dirección de Comercio de la Viceconsejería de Comercio y Consumo. En cuarto y último lugar esta orden apoya las actuaciones municipales de creación de nuevos productos turísticos que sean capaces de transformar los recursos de carácter patrimonial, natural, industrial, económico de ámbito local en productos turísticos diversificadores de la oferta y desestacionalizadores de la demanda.

En definitiva, la orden de ayudas de dinamización turística tiene como objetivo el desarrollo sostenible y equilibrado de la oferta turística de Euskadi, fijando oportunidades de generación de riqueza, empleo y desarrollo en todas las comarcas y pueblos.

Este programa de ayudas está contenido en la Orden de 30 de junio de 2000, del Consejero de Industria, Comercio, y Turismo, por la que se establecen ayudas para planes de dinamización turística de carácter territorial.

La citada Orden tiene por objeto regular el programa de ayudas para la realización de Planes de Dinamización Turística de carácter Territorial, desarrollando así lo dispuesto en el Decreto 121/2000, de 27 de junio, por el que se establecen distintas líneas de apoyo con Fines de Promoción Económica, en cuya Disposición Fi-

ratu eta burutzeko behar diren xedapenak emateko ahalmenak ematen zaizkio Industria, Merkataritza eta Turismo Sailburuari.

Aurreko ekitaldietan, turismo-administrazioak honako helburu nagusi hau izan zuen gidari: turismoa garatzeko eredua, alegia, 2000-2003 Sustapen Ekonomikoko Erakundeen arteko Planean definitutakoa, gure turismo-sektorean sartzea eta txertatzea gero eta gehiago. Estrategia pedagogiko hori lortzeaz gainera, 2000ko ekainaren 30eko laguntza-aginduak eredu hori bultzatu eta indarrean jarri nahi zuen.

Gure ustez baina, hurrengo fasean sartu behar dugu, hau da, baliabideen eskaintza turismoaren ikuspuntutik garatu behar dugu gero eta gehiago; baina, betiere, jarduera horiek modu ordenatuan eta aurrez planifikatuta egin behar dira, eta Turismoko Sailburuordetzak emandako jarraibideak eta jardunak izan behar ditu oinarri, garapenak ez baitu izan behar berez edonola sortzen den zerbait. Horrez gainera, turismo-eskualdeak zehaztu eta abiarazi behar dira, martxoaren 16ko Turismoa Antolatzeko 6/1994 Euskal Legearen 49. artikuluan adierazitakoari jarraituz.

Egin nahi diren aldaketak ikusita, egoki dirudi Agindu horren ordez aldaketak modu sistematiko batean antolatuko dituen xedapena ematea.

Eta, horren arabera, honako hau,

XEDATU DUT:

I. KAPITULUA
XEDAPEN OROKORRAK

*1. artikulua.*– Xedea.

1.– Aginduaren xedea: lurralde-mailako turismoa indarberritzeko planak egiteko laguntzen programaren esparru orokorra garatzea, sustapen ekonomikoko helburuak dituzten hainbat laguntza-linea ezartzen dituen ekainaren 27ko 121/2000 Dekretuaren 31. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

2.– Laguntzen programa horren arabera, inbertsioproiektuak lagunduko dira diruz, udalerriz gaindiko lankidetza-erakundeak sortzeko, turismo-garapenerako aukera handiko zonetan eskualdeko plan turistikoak garatzeko, Percotur (Merkataritza eta Turismoa Indarberritzeko Planak) planak bultzatzeko, eta turismoa indarberritzeko toki-ekimenak burutzeko eta herri eta/edo herriz gaindiko produktu turistikoak sortzeko.

*2. artikulua.*– Baliabide ekonomikoak.

1.– Aurreko artikuluko helburuak lortzera zuzendutako baliabide ekonomikoak, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu orokorretan ezarritako dagozkien aurrekontu-kredituetatik jasoko dira.

nal Primera, se faculta al Consejero de Industria, Comercio y Turismo para dictar las disposiciones que sean precisas para su desarrollo y ejecución.

Durante los ejercicios anteriores, el objetivo primero y principal que animó a la administración turística fue el que el modelo de desarrollo turístico definido en el Plan Interinstitucional de Promoción Económica 2000-2003 fuera calando y adoptándose paulatinamente en el sector turístico. la Orden de ayudas de 30 de junio de 2000, respondía a esa estrategia pedagógica, así como de impulso y puesta en marcha de dicho modelo.

Entendemos, sin embargo, que tenemos que entrar en la fase siguiente, en la de ir avanzando hacia un desarrollo turístico de la oferta de recursos pero desde una intervención planificada y ordenada, que no surja al azar sino que se apoye en las actuaciones y directrices de la Viceconsejería de Turismo y en la puesta en marcha y definición de las comarcas turísticas señaladas en el artículo 49 de la Ley Vasca de Ordenación del Turismo 6/1994, de 16 de marzo.

A la vista de las modificaciones que se pretenden introducir parece conveniente sustituir la citada Orden por otra disposición que articule las modificaciones de una manera sistemática.

Y, en virtud de ello,

DISPONGO:

CAPÍTULO I
DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 1.*– Objeto.

1.– El objeto de la presente Orden es desarrollar el marco general del Programa de ayudas para planes de dinamización turística de carácter territorial, establecido en el artículo 31 del Decreto 121/2000, de 27 de junio por el que se establecen distintas líneas de ayudas con fines de promoción económica.

2.– De acuerdo con dicho Programa de ayudas, se subvencionarán los proyectos de inversión tendentes a la creación de entes de cooperación supramunicipal, al desarrollo de planes turísticos comarcales en zonas con alto potencial de desarrollo turístico, el impulso de Planes PERCOTUR (Planes de Revitalización Comercial y Turística en Municipios de alta estacionalidad y/o potencialidad turística) y a las iniciativas locales de dinamización turística así como a la creación de productos turísticos locales y /o supralocales.

*Artículo 2.*– Recursos Económicos.

1.– Los recursos económicos destinados a la finalidad del artículo anterior procederán de las correspondientes partidas presupuestarias establecidas al efecto en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2.– Ekitaldi bakoitzari dagozkion laguntzak emateko deialdietan esleituko diren kopuru orokorrak aldatu egin ahal izango dira, betiere, horien ebazpena eman aurretik, eta, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren beste laguntza batzuen programak burututakoan agortu ez diren aurrekontu-erabilgarritasunen arabera, eskatutako laguntzen zenbateko osoa kontuan hartuta.

3.– Agindu honetan ezarritako laguntzak, lehiaketa bidez ebatziko dira; era horretan, aurrekontu-kreditu berari egotzita, eskaeren pluraltasuna egoteko aukera aurreikusi beharko da, eta eskaera horiek konparatu eta ebaluatu egin beharko dira laguntzak emateko eta, hala badagokio, laguntza horiek zenbatekoak izan behar duten erabakitzeko.

*3. artikulua.–* Onuradunak.

1.– Agindu honetan araututako laguntzak honako hauek eskatu ahal izango dituzte: udalek, mankomunitateek eta euskal sektore publikoko beste erakunde batzuek, bai eta garapen-agentziek edo turismo-partzuergoek, edo berezko nortasun juridikoa duten beste turismo-erakunde sustatzaile batzuek edo irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuek.

2.– Onuradunei diru-laguntzak eta laguntzak eman eta, hala badagokio, ordaindu ahal izateko, edozein zigor- edo itzultze-prozedurak amaituta egon beharko du, betiere, prozedura horiek, oraindik izapidetzen ari diren Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Nagusiak eta bere erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntza edo diru-laguntzen esparruan hasi badira.

3.– Lurralde-mailako turismoa indarberritzeko planetarako laguntzak arautzen dituen aginduaren babesean emandako diru-laguntzei lotuta, inbertsioak burutzeko lau hilabetetik gorako luzapena lortu duten onuradunek, laguntza horiek jasotzeko deialdia bukatutakoan, ezingo dute hurrengo deialdian laguntzarik jaso proiektu bererako, edo honekin zuzenean loturako jardunetarako.

*4. artikulua.–* Diruz lagundu daitezkeen jarduerak.

1.– Agindu honetan aurreikusitako laguntzak, itzuli beharrik ez duten diru-laguntzak dira eta honako jardun hauetako bat edo gehiago izango dute helburu:

A.– Turismoko lankidetzako erakundeak sortzea.

B.– Turismoa garatzeko aukera handiak dauden zonetan eskualdeko turismo-planak garatzea.

C.– Merkataritza eta Turismoa Indarberritzeko Planak (Percotures).

D.– Turismoa indarberritzeko toki-ekimenak burutzea, bai eta tokiko edo tokiz gaindiko turismo-produktuak sortzekoak ere.

2.– Los importes globales que se consignen en las convocatorias de concesión de ayudas correspondientes a cada ejercicio, podrán ser modificados, teniendo en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas, en función de las disponibilidades presupuestarias no agotadas que resulten de la ejecución de otros programas de ayudas del Departamento de Industria, Comercio y Turismo y con carácter previo a la resolución de las mismas.

3.– Las ayudas establecidas en la presente Orden se resolverán mediante el procedimiento de concurso, de forma que, imputadas a un mismo crédito presupuestario, deberá contemplarse la posible existencia de una pluralidad de solicitudes cuya comparación y evaluación serán necesarias para la concesión de las ayudas y para la determinación, en su caso de la cuantía de las mismas.

*Artículo 3.–* Beneficiarios.

1.– Podrán solicitar las ayudas reguladas en la presente Orden los ayuntamientos, mancomunidades y otras instituciones del sector público vasco, así como las agencias de desarrollo o consorcios turísticos u otras entidades promotoras de turismo con personalidad jurídica propia y las asociaciones o entidades privadas sin ánimo de lucro.

2.– La concesión y, en su caso, el pago de las subvenciones y ayudas a los beneficiarios de éstas quedarán condicionados a la terminación de cualquier procedimiento de reintegro o sancionador que, habiéndose iniciado en el marco de ayudas o subvenciones de la misma naturaleza concedidas por la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus organismos autónomos, se halle todavía en tramitación.

3.– Los beneficiarios de subvenciones concedidas al amparo de la orden reguladora de las ayudas para planes de dinamización turística de carácter territorial que hayan obtenido una prórroga para la ejecución de las inversiones superior a 4 meses, no podrán ser beneficiarios de una nueva ayuda para el mismo proyecto, o para actuaciones directamente relacionadas con él, en la convocatoria siguiente a la que se les concedieron aquellas.

*Artículo 4.–* Actividades subvencionables.

1.– Las ayudas previstas en la presente Orden tendrán la consideración de subvenciones no reintegrables e irán dirigidas a alguna o algunas de las siguientes actuaciones:

A.– Creación de entes de cooperación turística.

B.– Desarrollo de planes turísticos comarcales en zonas con alto potencial de desarrollo turístico.

C.– Planes Especiales de Revitalización Comercial y Turística (Percotures).

D.– Iniciativas locales de dinamización turística, así como la creación de producto turístico local y supralocal.

A.– Turismo-lankidetzako erakundeak sortzea.

Beren izaera juridikoa izanik, ekintza estrategiko koordinatuen bidez inguruko garapen turistikoa bultzatzeko helburuarekin, eskualdeko turismo-eremu bateko agente publiko eta/edo pribatuak bilduko dituzten turismoko lankidetzako erakundeak sortzeko laguntza emango da. Gutxienez, eskualde edo eremu funtzionala osatzen duten udalerrien %60k osatuak izan beharko dute, eta horien artean turismorako aukera handienak dituzten herriek egon beharko dute.

Agindu honen helburuetarako, turismorako aukera handienak dituzten udalerritzat joko dira turismoko baliabide-kopururik handienak dituztenak, udaleko turismo-zerbitzurik gehien dituztenak (turismo-bulegoak, turismo-ekimenerako zentroak) edo turismoari zuzendutako udal aurrekontu-kontusail handienak dituztenak.

Halaber, Agindu honen helburuetarako, eskualde edo eremu funtzionaltzat joko dira honako hauek: EUSTATek finkatutakoak, maiatzaren 31ko 4/1990 Legean jasotako eremu funtzionalak (Lurraldearen Antolamendurako Legea eta bere Jarraibideak), eta, azkenik, garapen-agentzia, mankomunitate eta/edo koadriletako kudeaketa-eremuak.

Horretarako, diruz lagundu ahal izango dira:

A.1. Turismo-lankidetzarako erakundea ezartzeko aldez aurreko azterketa: erakundea definitu eta eratzeko laguntza teknikoa (proiektuaren azterketa eta bideragarritasuna, eta eratzeko-plana).

A.2. Eratzeko eta lehen aldiz ezartzeko gastuak, lehen urteko altzari eta ekipamenduak, eta, azkenik, deialdiaren urteari dagozkion pertsonal- eta funtzionamendu-gastuak.

A.3. Turismoa indarberritzeko plan estrategikoa egiteko laguntza teknikoa, gerora kudeaketa-plana ekarriko duena.

B. Eskualdeko turismo-planak garatzea.

Eskualde edo eremu funtzional bateko turismo-garapenerako erakunde arduradunek sustatuta, euskal turismo-eskaintzaren lurralde-oreka aproposa bultzatuko duten eskualdeko turismo-planak definitu eta abian jartzeko lanak diruz lagundu ahal izango dira; horretarako, honako laguntza hau izango dute:

B.1. Turismo-erakargarritasun handia izan dezaketen baliabideak, dagoen turismoko zerbitzuen eskaintza, helmugaren puntu sendoak eta ahulak, helmugaren eta saldu daitezkeen produktuen marka-irudia eta hori lortzeko estrategiak, epe labur zein ertainean, definituko duen turismoa indarberritzeko plan estrategikoa egiteko laguntza teknikoa.

B.2. Aurreko idatz-zatian aipatutako turismoa indarberritzeko planean identifikatu eta definitutako proiektuen bideragarritasun-azterketak.

A.– Creación de entes de cooperación turística.

Se apoyará la creación de entes de cooperación turística que, dotados de naturaleza jurídica propia, agrupen a los agentes públicos y/o privados de un área turística comarcal con objeto de impulsar el desarrollo turístico de la zona mediante acciones estratégicas coordinadas. Deberán estar integrados al menos por el 60% de los municipios que componen la comarca o área funcional, entre los que deberán estar incluidos los de mayor potencial turístico.

A los efectos de la presente Orden, se entiende por municipios con mayor potencial turístico aquellos que dispongan de mayor número de recursos turísticos inventariados, de servicios turísticos municipales (oficinas de turismo, centros de iniciativas turísticas) o de partidas presupuestarias municipales destinadas al turismo.

Igualmente, a los efectos de la presente Orden se entiende como comarca o área funcional las definidas por el EUSTAT, las áreas funcionales contempladas en la Ley 4/1990 de 31 de mayo de Ordenación del Territorio y sus Directrices de Ordenación del Territorio (DOT), así como las áreas de gestión de las agencias de desarrollo, mancomunidades y/o cuadrillas.

Para ello, serán subvencionables:

A.1. El estudio previo para la implantación del ente de cooperación turística: asistencia técnica para la definición y constitución del ente (el análisis y viabilidad del proyecto y plan de constitución.

A.2. Los gastos de constitución y primer establecimiento, equipamiento y mobiliario del primer año, los gastos de personal y de funcionamiento correspondientes al año de la convocatoria.

A.3 La asistencia técnica para la elaboración de un plan estratégico de dinamización turística del que se derivará el plan de gestión.

B.– Desarrollo de planes turísticos comarcales.

Serán subvencionables la definición y puesta en marcha de planes turísticos comarcales que promovidos por los entes responsables del desarrollo turístico de una comarca o área funcional, impulsen un adecuado equilibrio territorial de la oferta turística vasca, apoyándose para ello:

B.1. La asistencia técnica para la elaboración de un plan estratégico de dinamización turística que defina, a corto y medio plazo, los recursos con fuerte potencial de atracción turística, la oferta de servicios turísticos existente, los puntos fuertes y débiles del destino, la imagen de marca del destino y de los productos que pudieran comercializarse así como las estrategias para alcanzarlo.

B.2. Estudios de viabilidad de proyectos identificados y definidos en el plan de dinamización turística mencionado en el apartado anterior.

B.3. Eskualdeko turismoa indarberritzeko onartutako plana garatu eta abian jartzeko arduradun teknikoa kontratatzea. Teknikari hori planean bakarrik arituko da lanean eta ezingo du turismo-jarduerarekin zuzenean lotuta ez dauden zereginekin bateragarri egin, ez eta haren barne-turismoko bulegoetan jendeari arreta eskaini ere.

B.4. Turismoa indarberritzeko planetan definitu eta onartutako jarduerak.

B.5. Seinaleztapen-proiektuak:

a) Seinaleak ezartzeko organo eskudunaren baimena izango duten «Euskal Herriko Turismo Seinaleen Eskuliburua» izenekoan ezarritako gomendioekin bat datozen baliabide turistikoak.

b) Dagokion federazioak proiektua behin-behineko homologatu ondoren (79/96 Dekretuko 9. artikulua) foru-organo eskudunak ematen duen bidexken ibilbideen proiektuaren baimena (behin-behinekoa) izango duten Euskal Autonomia Erkidegoan mendi-ibiliak antolatu eta normalizatzeari buruzko apirilaren 16ko Dekretuan ezarritakoaren araberako bidexkak.

C.– Merkataritza eta turismoa indarberritzeko planak (Percotures).

Agindu honen helburuetarako, kontzeptu honetan diruz lagundu ahal izango dira:

C.1. Merkataritza eta Turismoa Indarberritzeko Plan Bereziaren jarraipenerako laguntza teknikoa.

C.2. Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak egin edo onartutako Merkataritza eta Turismoa Indarberritzeko Planetan jasotako ekimenak burutzea.

D.– Turismoa indarberritzeko toki-ekimenak, eta tokiko eta tokiz gaindiko produktu turistikoa sortzea.

Turismoa indarberritzeko toki-ekimenen garapena, eta tokiko eta tokiz gaindiko produktu turistikoak sortzea, batez ere landa-ingurunean, ondoko idatz-zati hauetan laguntzen bidez babestuko dituzte:

D.1. Proiektu zehatz baten bideragarritasun turistikoa aztertzeko laguntza teknikoa.

Udalerriko turismoa indarberritzeko planak egiteko ez da laguntza teknikoa bultzatuko.

D.2. Aurretiko plan batean definitutako produktu turistikoak sortzeko turismoa indarberritzeko jardunak.

Tokiko edo tokiz gaindiko proiektu jakinek, euren eragin-esparruaren turismoa garatzeko erabakigarriak izateaz gain, Euskal Autonomia Erkidegoko turismoko erreferente bihurtzeko gai diren baldintzak dituztenean, «lehentasuneko interes turistikoko proiektu» gi-

B.3. La contratación de un técnico responsable del desarrollo y puesta en marcha del plan de dinamización turística comarcal aprobado. Dicho técnico tendrá dedicación exclusiva al plan y no podrá compatibilizarlo con otras tareas que no estén directamente relacionadas con la actividad turística, ni tampoco dentro de ésta, con la atención directa al publico en oficinas de turismo.

B.4. Las actuaciones definidas y aprobadas en los planes de dinamización turística.

B.5. Los proyectos de señalización de:

a) Los recursos turísticos acorde a las recomendaciones establecidas en el «Manual de Señalización Turística del País Vasco» que dispongan de la autorización del órgano competente para la instalación de las señales.

b) Los senderos acogidos a lo establecido en el Decreto 79/1996, de 16 de abril, sobre ordenación y normalización del senderismo en la Comunidad Autónoma del País Vasco que dispongan de la autorización (provisional) del proyecto de recorridos de senderos que concede el órgano foral competente, una vez homologado provisionalmente el proyecto por la entidad federativa correspondiente (art. 9 del Decreto 79/96).

C.– planes especiales de revitalización comercial y turística (Percotures).

A los efectos de la presente Orden serán subvencionables en este concepto:

C.1. Asistencia técnica para el seguimiento de Plan Especial de Revitalización Comercial y Turística.

C.2. La ejecución de las actuaciones contempladas en los Planes de Revitalización Comercial y Turística que hayan sido elaborados o aprobados por el Departamento de Industria, Comercio y Turismo.

D.– Iniciativas locales de dinamización turística, así como la creación de producto turístico local y supralocal.

El desarrollo de iniciativas locales de dinamización turística, así como la creación de producto turístico locales y supralocales, en especial en el medio rural, serán apoyados mediante ayudas en los siguientes apartados:

D.1. Asistencia técnica para el estudio de viabilidad turística de un proyecto concreto.

No se apoyará la asistencia técnica para la realización de planes de dinamización turística del municipio.

D.2. Actuaciones de dinamización turística y de creación de productos turísticos definidos en un plan previo.

Cuando determinados proyectos de ámbito local o supralocal reúnan condiciones para poder ser considerados no sólo determinantes para el desarrollo turístico de su área de influencia sino capaces de convertirse en referentes turísticos de la Comunidad Autónoma del

sa hartuko dira eta, horrenbestez, proiektu horien ondoriozko jardunek, diru-laguntzak jasotzeko, eskualdekoen tratamendu bera izango dute. «Lehentasuneko interes turistikoko proiektuak» horrela sailkatuko dira honako arrazoi hauek kontuan hartuta: euren izaera integrala, hainbat baliabide turistiko merkataritza-produktu bihurtzeko gaitasuna, turismoko edo aisiarako beste hainbat inbertsio pribatu sustatzeko gaitasuna, edo erabiltzen ez diren edo narriatuta dauden gure autonomia-erkidegoko turismoko hainbat toki suspertzea.

D.3. Honako seinaleztapen-proiektu hauek:

Seinaleak ezartzeko organo eskudunaren baimena izango duten «Euskal Herriko Turismo Seinaleen Eskuliburua» izenekoan ezarritako gomendioekin bat datozen baliabide turistikoak.

Dagokion federazioak proiektua behin-behineko homologatu ondoren (79/96 Dekretuko 9. artikulua) foru-organo eskudunak ematen duen bidexken ibilbideen proiektuaren baimena (behin-behinekoa) izango duten Euskal Autonomia Erkidegoan mendi-ibiliak antolatu eta normalizatzeari buruzko apirilaren 16ko 79/1996 Dekretuan ezarritakoaren araberako bidexkak.

*5. **artikulua*** – Turismoa indarberritzeko proiektuetan jasotako diruz laguntzeko ekintzen nolakoa.

Eskualdeko turismo-planetan, turismoa indarberritzeko toki-ekimenetan eta produktuak sortzeko proiektuetan turismo-arloko ekimenak izan behar dira oinarri, honako ondasun edo faktore hauek helburu direla:

1.– Potentzial turistikoa izango duten, eta turismoko eskaintzan eta kontsumoan sar daitezkeen baliabideak balioztatzea:

a) Ondareko elementu bereziei balio turistikoa ematea, bertako ondasunaren errehabilitazio- eta berritzeobrak baztertuta daudela. Diruz lagundu ahal izango dira era honetako inbertsioak direnean: argiztatzea, bisitak errazteko lanak egitea, inguruneak eta sarrerak hobetzea, bisitariak hartzeko azpiegiturak eta informazioeuskarriak sortzea.

b) Interpretazio-zentroak sortzea.

c) Paraje naturalak egokitzea bisita turistikoa egiteko (bisita turistikora egokitu, antolatu eta berreskuratu).

d) Gaikako ibilbideak sortu eta seinaleztatzea.

Ez dira diruz lagunduko gaikako ibilbideen proiektuak, baldin eta promoziorako liburuxkak edo antzeko euskarriak baino ez badituzte. Edonola ere, ez dira diruz lagunduko sustapen-materialarekin lotutako gastukapituluak.

e) Orokorrean, produktuak sortzera zuzendutako jarduerak, baldin eta produktu horien inguruan antolatzen bada turismo-eskaintza eta turismoa urteko sasoi guz-

País Vasco, tendrán la consideración de «proyectos de interés turístico preferente» y, por tanto, las actuaciones derivadas de estos proyectos tendrán el mismo tratamiento a efectos de subvención que las de ámbito comarcal. «Los proyectos de interés turístico preferente» serán tales por: su carácter integral, por su capacidad de transformar múltiples recursos turísticos en productos, por su capacidad de incentivar otras inversiones turísticas o de ocio de carácter privado, o porque revitalizan lugares turísticos de nuestra Comunidad Autónoma que se encuentran en desuso o degradados.

D.3. Los proyectos de señalización de:

Los recursos turísticos acorde a las recomendaciones establecidas en el «Manual de Señalización Turística del País Vasco» que dispongan de la autorización del órgano competente para la instalación de las señales.

Los senderos acogidos a lo establecido en el Decreto 79/1996, de 16 de abril, sobre ordenación y normalización del senderismo en la Comunidad Autónoma del País Vasco que dispongan de la autorización (provisional) del proyecto de recorridos de senderismo que concede el órgano foral competente, una vez homologado provisionalmente el proyecto por la entidad federativa correspondiente (art. 9 del Decreto 79/96).

***Artículo** 5*- Naturaleza de las actuaciones subvencionables contenidas en los proyectos de dinamización turística.

Los planes turísticos comarcales, las iniciativas locales de dinamización turística, así como los proyectos de creación de productos deberán abordar actuaciones de carácter marcadamente turístico tomando por objeto los siguientes bienes o factores:

1.– Puesta en valor de los recursos que tengan un potencial turístico y sean integrables en la oferta y consumos turísticos:

a) Puesta en valor turístico de elementos patrimoniales singulares, excluyendo obras de rehabilitación y restauración del propio bien. Serán subvencionables aquellas inversiones que afecten a la iluminación, acondicionamiento para la visita, mejoras de entornos y accesos, infraestructuras de acogida y soportes informativos.

b) Creación de centros de interpretación.

c) Adecuación de parajes naturales para su visita turística(recuperación, ordenación, adaptación a la visita turística).

d) Creación y señalización de rutas temáticas.

No serán subvencionables los proyectos de rutas temáticas que sólo incluyan folletos promocionales o soportes similares. En cualquier caso, no serán subvencionables los capítulos de gasto relacionados con el material promocional.

e) En general, aquellas actuaciones dirigidas a la creación de productos en torno a los cuales se articule la oferta del destino y la desestacionalización de la deman-

tietara zabaltzeko lana; jarduera horiek ezin dira turismoa sustatu eta/edo merkaturatzeko planen barnean egon.

2.– Turistek turista modura jasotzen dituzten zerbitzu publiko eta pribatuak:

a) Turistek erabiltzeko zerbitzu publikoen kalitatea aztertu, neurtu eta jarraipena egiteko baremoak lantzea, eta bertatik ondorioztatuko diren jardunak.

b) Baliabide edo zona turistikoetara garraiatzeko zerbitzuak.

c) Bisitariak hartzen dituzten profesionalen prestakuntza teknikoa edo gaitasunekoa, eta orokorrean herritarren sentsibilizazioa.

3.– Ingurune hiritarra eta bere ingurua turismorako erabileraren berezitasunetara egokitzea.

*6. artikulua* – Laguntzen baldintzak.

1.– Aurreko guztia kontuan izanda ere, behar bezala justifikatutako eta onuradunari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik, deialdiaren ebazpena argitaratutakoaren hurrengo ekitaldiko ekainaren 30aren ondoko egunetan egindako inbertsioak onartu ahal izango dira, dagokion luzapena eman ondoren. Luzapen hori ez da sei hilabete baino gehiagokoa izango, eta, betiere, azken kasu honetan, inbertsioak aurreko ekitaldietan konprometituta daudela aurrekontu bidez justifikatzen bada.

Eskatutako luzapenaren eskaera eta ematea, edozein kasutan ere urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatutako azaroaren 16ko 30/1992 Legearen 49.3. artikuluan xedatutakoaren arabera eman beharko dira, dagokion epea amaitu aurretik. Epeak luzatu edo ezeztatzeari buruzko ebazpenen aurka ezingo da errekurtsorik aurkeztu.

2.– Edonola ere, gastu edo inbertsio onargarri gisa bere balio «garbia» zenbatuko da; balio hori, Balio Erantsiaren gaineko Zerga kenduta fakturatuko den kopurua izango da.

3.– Gastu arruntak eta pertsonalarenak beti, dagokion urteko deialdia egiten den ekitaldi ekonomikoari buruzkoak izango dira.

4.– Erakunde onuradun bakoitzak pertsona bat kontratatzeagatik bakarrik jaso dezake diru-laguntza.

5.– Orokorrean, seinaleak instalatu beharra eskatzen duten proiektu guztiek organo eskudunaren instalaziobaimena izan behar dute laguntzak jaso ahal izateko.

Diru-laguntza jaso ahal izango dute, proiektua egiteak, Agindu honen deialdian arautukako denboran sortzen dituen gastu guztiek. Kanpoan geratuko dira erakunde eskatzailearen berezko eta kudeaketako gastuak, eta seinaleak zaindu eta berritzeak eragindakoak.

da y que no se integren en planes de promoción y/o de comercialización turística.

2.– Los servicios públicos o privados que reciben los turistas en su calidad de tal:

a) Análisis de calidad de los servicios públicos de uso turístico, elaboración de baremos para su medición y seguimiento y las actuaciones que de ello se deriven.

b) Servicios de transporte a recursos o zonas turísticas.

c) Formación técnica o aptitudinal de los profesionales que atienden a los visitantes y sensibilización de la población en general.

3.– La adecuación del medio urbano y su entorno a las especificidades del uso turístico.

*Artículo 6* – Condiciones de las ayudas.

1.– Las inversiones en activos fijos deberán comprometerse en firme e iniciarse en el ejercicio en que se publique la resolución de convocatoria al amparo de la presente Orden y finalizar antes del 30 de junio del ejercicio siguiente. No obstante lo que precede, por motivos debidamente justificados y no imputables al beneficiario, serán admisibles las inversiones realizadas en fecha posterior a 30 de junio del ejercicio siguiente al de la publicación de la resolución de convocatoria, previa concesión de la correspondiente prórroga que no excederá de un período de seis meses, siempre que en este último caso se justifique mediante presupuesto que las inversiones están comprometidas en ejercicios anteriores.

La petición y concesión de la ampliación solicitada, en todo caso deberán producirse conforme a lo dispuesto en el artículo 49.3 de la Ley 30/1992, de 16 de noviembre, modificada por Ley 4/1999, de 13 de enero, antes del vencimiento del plazo de que se trate, no siendo susceptibles de recursos los acuerdos sobre ampliación o denegación de plazos.

2.– En todo caso, se computará como gasto o inversión admisible su valor «neto», entendiéndose como tal el importe facturado una vez deducido el Impuesto sobre el Valor Añadido.

3.– Los gastos corrientes y de personal se referirán siempre a los del ejercicio económico en el que se realiza la convocatoria anual correspondiente.

4.– Sólo será subvencionable la contratación de una única persona por entidad beneficiaria.

5.– Con carácter general, todos los proyectos que conlleven instalación de señales deberán contar con la autorización de instalación del órgano competente para poder ser objeto de ayuda.

Serán subvencionables todos los gastos que la realización del proyecto genere durante el período regulado en la convocatoria de la presente Orden. Quedan excluidos los gastos propios y de gestión del ente solicitante y los de mantenimiento o reposición de señales.

7. ***artikulua.*** – Laguntzak.

1.– Agindu honetan jasotako laguntzak, artikulu honetan zehaztuko diren kopuru eta ehunekotan gauzatuko dira itzuli beharrik ez duten diru-laguntzen bidez.

2.– Turismoko lankidetzako erakundeak sortzera zuzendutako jardunak ondoren adieraziko ditugun ehuneko eta kopuruen bidez diruz lagunduko dira:

a) Aurretiko definizio-azterketarako laguntza teknikoa. Ezingo du onartutako inbertsioaren %60 gainditu, ez eta 18.000 euro ere.

b) Eratzeko eta lehen ezarpenerako gastuak, lehen urteko altzariak eta ekipamendua. Ezingo du onartutako inbertsioaren %40 gainditu, ez eta 12.000 euro ere.

c) Gerente edo teknikaria kontratatzea eta eskualde-esparruko turismoko lankidetzako erakundeetarako funtzionamendu-gastuak. Ezingo dute soldata gordinaren %50, 18.000 euro eta funtzionamendu-gastuaren %40 gainditu, eta gehienez 9.000 euro jaso ahal izango dituzte.

d) Turismoa indarberritzeko plan estrategikoa antolatzeko laguntza teknikoa. Ezingo dute onartutako inbertsioaren %70 gainditu, ez eta 21.000 euro ere.

3.– Eskualdeko Turismoko Planak Garatzera zuzendutako jardunak diruz lagunduko dira ondorengo ehuneko eta kopurutan:

a) Turismoa indarberritzeko plan estrategiko bat egiteko laguntza teknikoa. Ezingo du onartutako inbertsioaren %70 gainditu, ez eta 21.000 euro ere.

b) Turismoa indarberritzeko planetan identifikatu eta definitutako proiektuen bideragarritasun-azterketak. Ezingo dute onartutako inbertsioaren %50 gainditu, ez eta 12.000 euro ere.

c) Laguntza teknikoa edo turismoa indarberritzeko plana abian jarri eta garatzeko arduradun teknikoa kontratatzea. Ezingo dute soldata gordinaren %50 gainditu, ez eta 18.000 euro ere.

d) Planetan definitu eta onartutako jardunak. Ezingo dute onartutako inbertsioaren %50 gainditu, ez eta 180.000 euro ere.

e) Turismoko eta bidexken seinaleak. Ezingo dute onartutako inbertsioaren %50 gainditu, ez eta 36.000 euro ere.

4.– Merkataritza eta Turismoa Indarberritzeko Planak (Percotures) diruz lagunduko dira honako ehuneko eta kopuru hauetan:

a) Merkataritza eta Turismoa Indarberritzeko Planaren jarraipenerako laguntza teknikoa. Ezingo dute onartutako inbertsioaren %50 gainditu, ez eta 12.000 euro ere.

***Artículo*** 7.– Ayudas.

1.– Las ayudas contempladas en la presente Orden se materializarán a través de subvenciones no reintegrables en las cuantías y porcentajes que se determinan en el presente artículo.

2.– Las actuaciones dirigidas a la creación de entes de cooperación turística serán subvencionadas en los siguientes porcentajes y cuantías:

a) Asistencia técnica para el estudio previo de definición; No podrán superar el 60% de la inversión admitida ni la cantidad 18.000 euros.

b) Gastos de constitución y primer establecimiento, equipamiento y mobiliario del primer año; No podrán superar el 40% de la inversión admitida ni la cantidad de 12.000 euros.

c) Contratación de gerente o técnico y gastos de funcionamiento para entes de cooperación turística de ámbito comarcal. No podrán superar ni 50% del salario bruto ni la cantidad de 18.000 euros, ni el 40% de gastos de funcionamiento, con un máximo de 9.000 euros.

d) Asistencia técnica para la elaboración de un plan estratégico de dinamización turística; no podrán superar el 70% de la inversión admitida, ni la cantidad de 21.000 euros.

3.– Las actuaciones dirigidas al Desarrollo de Planes Turísticos Comarcales serán subvencionadas en los siguientes porcentajes y cuantías:

a) Asistencia técnica para la elaboración de un plan estratégico de dinamización turística; no podrán superar el 70% de la inversión admitida ni la cantidad de 21.000 euros.

b) Estudios de viabilidad de proyectos identificados y definidos en los planes de dinamización turística; no podrán superar el 50% de la inversión admitida ni la cantidad de 12.000 euros.

c) Asistencia técnica o contratación de un técnico responsable del desarrollo y puesta en marcha del plan de dinamización turística; no podrán superar ni 50% del salario bruto ni la cantidad de 18.000 euros.

d) Actuaciones definidas y aprobadas en los planes; no podrán superar el 50% de la inversión admitida ni la cantidad de 180.000 euros.

e) Señalización turística y de senderos; no podrán superar el 50% de la inversión admitida ni la cantidad de 36.000 euros.

4.– Los Planes Especiales de Revitalización Comercial y Turística (Percotures) serán subvencionadas en los siguientes porcentajes y cuantías:

a) Asistencia técnica para el seguimiento del Plan Especial de Revitalización Comercial y Turística; no podrán superar el 50% de la inversión admitida ni la cantidad de 12.000 euros

b) Planetan definitu eta onartutako jardunak. Ezingo dute onartutako inbertsioaren %50 gainditu, ez eta 150.000 euro ere.

5.– Turismoa indarberritzeko toki-ekimenak, eta tokiko eta tokiz gaindiko produktuaren sorrera diruz lagunduko dira honako ehuneko eta kopuru hauetan:

a) Proiektu zehatz baten bideragarritasuna aztertzeko laguntza teknikoa. Ezingo dute onartutako inbertsioaren %50 gainditu, ez eta 12.000 euro ere.

b) Planetan definitu eta onartutako jardunak. Ezingo dute onartutako inbertsioaren %50 gainditu, ez eta 120.000 euro ere, baldin eta ez badituzte «lehentasuneko interes turistikoko proiektu» modura katalogatzen; kasu horretan, gehienezko diru-laguntza 180.000 euro artekoa izan daiteke.

c) Turismoko eta bidexken seinaleak. Ezingo dute onartutako inbertsioaren %50 gainditu, ez eta 18.000 euro ere.

6.– Degradazio sozioekonomikoa eta hirigintza-mailakoa egon arren, indarreko erakundeen arteko planak badituzten udalerritan burutuko diren proiektuak direnean (udalerri horien izenak Agindu honen Eranskinean adierazten dira), Agindu honetan zehaztutako ehunekoen eta kopuruen mugak %10 gehitu daitezke. Helburu horrekin, Agindu honen Eranskinean, aukera hori duten eskualde eta udalerriak adieraziko dira.

*8. artikulua.*– Lehentasun-irizpideak.

1.– Agindu honetan eskatutako baldintza formalak bilduko dituzten eskaera guztiak ebaluatuko dituzte; betiere, proiektuak, euren tipologiaren arabera zehaztutako baldintzetara egokitzen badira.

Hala ere, Agindu honetara zuzendutako baliabide ekonomikoak nahikoak izango ez balira goian aipatutako eskaera guztiei aurre egiteko, lehentasuna izango dute ondoren adieraziko diren lehentasun-irizpideak beteko dituzten proiektuek ondoko baremo hauek kontuan hartuta:

a) Euren ezaugarriengatik, euren eragin-eremuan turismoa garatzeko ezinbesteko joko dituztenak: 30 puntu.

b) Aginduaren 4. artikuluaren 1.A idatz-zatian sartutako proiektuak. Turismoko lankidetzako erakundeak sortzea: 20 puntu.

c) Aginduaren 4. artikuluko 1.C idatz-zatian sartutako proiektuak. Merkataritza eta Turismoa Indarberritzeko Planak (Percotures): 20 puntu

d) Aurreko urteetan hasitako proiektuen zati eta jarraipen izango diren inbertsioak dituzten eta Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak babestu dituen proiektuak: 20 puntu.

b) Actuaciones definidas y aprobadas en los planes; no podrán superar el 50% de la inversión admitida ni la cantidad de 150.000 euros.

5.– Las iniciativas locales de dinamización turística, así como la creación de producto turístico local y supralocal serán subvencionadas en los siguientes porcentajes y cuantías:

a) Asistencia técnica para el estudio de viabilidad de un proyecto concreto; no podrán superar el 50% de la inversión admitida ni la cantidad de 12.000 euros.

b) Actuaciones definidas y aprobadas en los planes; no podrán superar el 50% de la inversión admitida ni la cantidad de 120.000 euros, salvo que sean catalogadas como «proyectos de interés turístico preferente», en cuyo caso, la subvención máxima podrá ampliarse hasta 180.000 euros.

c) Señalización turística y de senderos ; no podrán superar el 50% de la inversión admitida ni la cantidad de 18.000 euros.

6.– Cuando se trate de proyectos que se desarrollen en municipios relacionados en el Anexo a la presente Orden ubicados en comarcas en las que, existiendo importantes niveles de degradación socioeconómica y urbanística, cuenten con planes interinstitucionales en vigor, los límites porcentuales y cuantitativos fijados en la presente Orden podrán ser incrementados en un 10%. A tal efecto, en el Anexo a la presente Orden, se relacionan las comarcas y municipios que reciben dicha consideración.

*Artículo 8.*– Criterios de prioridad.

1.– Serán evaluadas todas las solicitudes que reúnan los requisitos formales requeridos en la presente Orden y cuyos proyectos se ajusten a las condiciones especificadas según su tipología.

Sin embargo, en el caso de que los recursos económicos destinados a la presente Orden fueran insuficientes para hacer frente a todas las solicitudes antes mencionadas, tendrán preferencia los proyectos que cumplan los criterios de prioridad que figuren a continuación, con la baremación siguiente:

a) Los que por sus características sean considerados esenciales para el desarrollo turístico de su área de influencia: 30 puntos.

b) Los proyectos encuadrados en el apartado 1.A del artículo 4 de la Orden: Creación de entes de cooperación turística: 20 puntos.

c) Los proyectos encuadrados en el apartado 1.C del artículo 4 de la Orden: Planes Especiales de Revitaliación Comercial y Turística (Percotures): 20 puntos.

d) Aquellos cuyas inversiones formen parte y sean continuación de proyectos iniciados en años anteriores y que hayan sido apoyados por el Departamento de Industria, Comercio y Turismo: 20 puntos.

e) Udalerri- zein eskualde-mailan Turismoa Indarberritzeko Planetan definituko diren edo, horiek eguneratu eta garatzearren, Plan horien barne sartu diren proiektuak: 20 puntu.

f) Kontratua aurkeztuz, obra esleituz edo alderdi hori egiaztatuko duen dokumentazio bidez, proiektua burutzea bideragarria dela bermatuko dutenak: 10 puntu.

2.– Ebaluazio Batzordeak, aurkeztutako proiektuen jatorria eta baliabide ekonomikoak ikusita, esleitutako fondoak, lortutako puntuen arabera banatuko ditu; halaber, aurreko idatz-zatian jasotako irizpideen arabera lehentasun-maila txikiagoa dutenentzat, kreditua agortu delako, diru-laguntza atzera botatzea proposa dezake.

*9. artikulua.*– Beste laguntza batzuekiko bateragarritasuna.

1.– Agindu honetan ezarritako laguntzak, beste hainbat entitate edo erakundek emandako edozein laguntzarekin bateragarri izango dira.

